



www.begiko.com

© Testua: 2019, PABLO BARRIO

© Irudiak: 2019, JOSEBA LARRATXE “JOSEVISKY”

© Euskarazko argitalpena:

2019, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-47-6

Lege-gordailua: M-7321-2019

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2019ko azaroa

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Irurk Itzulpenak

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Hankazikin

Pablo Barrio

Irudiak: Josevisky

begiko

*Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen
bizigai...*

Xabier Lete

2007. urtean Nafarroako Antzerki Eskolak eta Iruñeko
Udalak antolatutako Haurrentzako Antzerki Testuen
Lehiaketan euskara arloko saria «Herio azeri hori»
izenburupean.

PERTSONAIAK

HERIOA
HANKAZIKIN
AITA
AMA
BEGIKLIK

1. EKITALDIA

Ospitaleko gelan, erlojua gelditu da

Ilunpean dago agertokia. Leku agerian, erloju digital batek ordua markatzen du. Minutu bakoi-tzari dagokion zenbakia jartzen dio puntu-puntu-tuan. Bihotz ahul baten taupadak urratzen du isiltasuna, xumeki urratu ere.

9

Apurka, argitxo bat piztu eta, armairu moduko baten ondoan, ohe bat agertzen da agertokiaren albo batean. Norbait dago ohean etzanda. Gorputz baten silueta antzematen da maindire azpian. Gorputza ez da oso handia. Ume bat da. Ez zaio aurpegia ikusten, ordea. Lo dago. Lo omen dago. Lo omen. Lo... Ohe ondoko euskariaren gainean bihotz-erritmoa kontrolatzen duen gailua dago: taupaden soinuarekin batera, argitxo batek salto txiki bat egiten du pantaila-

txoan. Umeari Hankazikin goitizenez deitzen diote denek.

10 *Ilunpea mantentzen da tarte batez, baina be-rehala erizaina sartzten da eta argia pizten du. Argia piztearekin batera erlojua dardarka hasten da, uneko ordua keinuka markatuz, 18:34 adibidez. Baina, adi! Erizaina al da? Ez, erizainaren antza du, baina ez da erizaina. Eskuan karpeta bat badakar ere, kirtenetik heldu eta sorbaldan pausatutako sega du nabarmenena. Segaduna da, bai. Herioa. Sega ohearen kontra utzi eta karpeta irekitzen du.*

HERIOA: *(Karpeta irakurriz) Hankazikin...*

Oheburuan dagoen izenarekin alderatu, eta bai, bat datoz. Deskonektatu egiten du makina eta erlojua itzali egiten da, taupada isildu, argi-txoak ez du salto gehiago egiten.

HERIOA: *(Jator, suelto) Tira, altxatu, egina du zureak.*

Karpetatik inprimaki bat atera eta betetzeari ekiten dio Herioak. Horretan ari dela, Hankazikin agertzen da ohearen bestaldean. Maindireak

*ez dira mugitu, baina hor dago umea, bai, pija-
maz jantzita, ohetik altxa berria. Eskuekin be-
soak igurzten ditu, freskurak hartuta dagoela
ematen du. Galduta bezala mugitzen da, harridu-
rak hartuta.*

HERIOA: *(Lagunkiro)* Zer? Zer moduz?

HANKAZIKIN: *(Ohera hurbildu, maindirea
apur bat altxatu eta begira geratzen da. Jaitsi
egiten du gero)* Ez dakit, hil egin naizela uste dut.

11

HERIOA: *(Asmo txarrik gabe, larritasuna ken-
du nahian)* Bingo! Hamaika puxtarri zuretzat!

HANKAZIKIN: Bada, nik ez diot graziarik
ikusten, e!

HERIOA: Ez gaizki hartu, ume! Badakit ez
dela erraza zuretzat, baina zer nahi zenuen,
negarrez hastea? Hori al da laguntzeko mo-
dua? *(Umearengana hurbildu eta laztantxo bat
egiten dio)* Negar egin nahi baduzu, egin negar,
ulertuko dut...

HANKAZIKIN: Zer dakit nik, ez dakit negar
egiteko gogorik ote dudan. Hain da berria hau
niretzat... *(Inguruari begira)* Zera, lekuz kanpo

nago oraindik; ez dakit nola esan, lur hartu gabe-edo.

HERIOA: (*Sano-sano*) Lur hartu gabe? Kontxo, zulora joateko presarik ez izan, ume, hil berria zara-eta! Gainera, gaur egun hilerrira ordeztatu erraustu egiten da askotan. Zuk zer nahiago?

12 HANKAZIKIN: (*Zorrotz*) Ez dakit. Ez dut horretaz inoiz pentsatu, ulertzen?

Isilik geratzen dira biak. Herioak inprimakia betetzeari ekiten dio berriro.

HANKAZIKIN: Eta zu nor zara? Erizaina?


HERIOA: (*Minduarena eginez*) Erizaina? Nola erizaina? Mesedez...!

HANKAZIKIN: Uniforme horrekin...

HERIOA: Erizaina...? Ez, ez, ez... (*Harro*) Eritasuna naiz ni, eritasuna bera! Hilgarria gutzit, gainera. Zomorrotxikienik ere ez zait eskapatzen!

HANKAZIKIN: Nola...?

HERIOA: Herioa! Segaduna, bada! (*Ohearen kontra dagoen sega seinalatuz*) Ez duzu ikusi?



HANKAZIKIN: A, bai... (*Pentsakor*) Orduan zuk...

HERIOA: Horixe, nik moztu dut konexioa. Nire ofizioa dut, aizu, eta bete egin behar, ondo bete gainera, desastrea litzateke mundua bestela.

14 HANKAZIKIN: Seg a hartuta bete, noski... (*Lepoa mozteko keinua eginez*) Kruaggg...! «Kone-
xioaren» mozketa, esan nahi dut.

HERIOA: O, ez. Egia esan, beste garaietako kontua da hori, segarena. Gaur egun, ziberne-
tiko-zibernetiko egiten dut lan askotan. (*Kontatu ahala, berotu egiten da*) Pantaila ireki, hel-
burua aukeratu, tekla sakatu... eta listo! Bizitza bat gutxiago! Hurrengo pantailara! (*Beroaldia baretuz*) Baina, tira, sega ofizioaren aspaldiko ikurra denez...

HANKAZIKIN: Eta den-denak «deskonekta-
tzen» dituzu. (*Kexu*) Ni bezalako ume mokor-
do bat ere ahaztu gabe.

HERIOA: Den-denak! (*Barrez*) Mokordo edo ez-mokordo izan, ponpari eman eta komune-

tik behera denak! Den-denak, e! Profesional iaioa naiz, aizu. Orain arte, behintzat, ez dut inoiz kale egin... ezta egingo ere etorkizunean, hori matematiko!

HANKAZIKIN: (*Bizkarra emanaz*) Matematika, puaggg...

Isilunea.

HERIOA: (*Inprimakiari begira*) Zure izena?

15

HANKAZIKIN: Azkenaldian Hankazikin esaten didate denek, Hankazikin.

HERIOA: Ez, baina benetakoa behar dut.

HANKAZIKIN: Horixe lan egiteko modua! Aurretik bizitza kendu... eta izena galdetu gero! Aldrebes egin beharko zenuke! Horrela ez dago modu seguruan bizitzerik, aizu!

HERIOA: (*Untxi-irriaz*) Arrazoia duzu horretan, inork ezin du modu seguruan bizi. Inoiz ez!

HANKAZIKIN: Ez, harro gainera! Balentria izango balitz bezala!

HERIOA: Ez haserretu, ume. Hanka sartzek ere badaudela esan nahi dut. Badakizu, eguneko lan zerrendan izen bat agertu, tonta-

mentean despistatu eta... ñaka! Beste bat zurlora haren ordeztu!

HANKAZIKIN: Tontamentean, bai... (*Bizkar eman*) Utzi, utzi bakean...

HERIOA: (*Adiskidetsu*) Hankazikin orduan, e? Zer, bada? (*Isilik umea*) Zer? Ez duzu ezer esaten?

16 HANKAZIKIN: (*Zomorro*) Ez da harro egoteko istorioa.

HERIOA: O, lasai, hil eta gero lotsak eta harrotasunak ez dute ezertarako balio. (*Jakin-minak seko jota*) Kontadazu, kontadazu...

HANKAZIKIN: Ezetz, kontxo!

HERIOA: (*Adarra jotzeko asmotan, haren inguruan saltoka*) Bai, ziur kakatan plaust egin duzula noizbait. Horixe, kaka putzu batean edo erori... eta horregatik Hankazikin izena!

HANKAZIKIN: Arraio demonio, nola asmatu duzu?

HERIOA: (*Harroputzarena eginez*) Pssaaa...!

HANKAZIKIN: Adi, e! Harrotasunak ez du ezertarako balio hemen, zuk zeuk esan duzu.

HERIOA: Hil ondoren, horixe, baina ni bizi-bizirik nago, inor baino biziago. Pentsa, azken biziduna hil arte ez naiz hilko! Atera kontuak!

HANKAZIKIN: Hori osasuna, ezta? Gainera, behin denak hilda daudenean eta munduan bizidun bakarra geratzen denean, ziur zeure burua beldurrak harrapatu eta ez duzula koitadua hilko, ezta? Koldar hori, zure medizinatik ez probatzeko.

HERIOA: (*Pentsakor bat-batean*) Umm... Begira, ez da ideia txarra, bizidun bakarra geratzen denean... Ikusten? Hau bizimodu eroa nirea! Horrenbeste lan eta lan egin, eta ez dut gauza garrantzitsuetan pentsatzeko astirik gero... Oporrak hartu beharko nituzkeela uste al duzu?

HANKAZIKIN: (*Haserre*) O, bai, dudarik gabe, pikutara joateko! Ulertzen? Zoaz pikutara!! Horixe duzu lekurik onena oporretara joateko. Oporretara betiko, gainera, eta denok pozik!

HERIOA: Oi, oi, oi... Haserre zaudela ematen du.

HANKAZIKIN: Askoz okerrago oraindik, hilda nago!!!

HERIOA: (*Zintzo*) Hori egia da, horretan ez dago bueltarik.

HANKAZIKIN: (*Isilune baten ondoren, beste kezka bat buruan*) Negarrez egongo dira denak etxean.

18 HERIOA: Lasai, oraindik ez dakite ezer. Eri-zaina pasa arte inor ez da konturatuko zure... zera... zure egoeraz.

HANKAZIKIN: (*Bat-batean konturatzen da eta ohe ondoko mahaitxo aldera abiatzen da segapotoaren bila*) Hara, abisatu beharko diet orduan.

HERIOA: Abisatu?

HANKAZIKIN: Abisatu, noski, etxekoei. Hilda nagoela jakin nahiko dute, ez duzu uste? Zer gutxiagorik espero behar guraso prestu batzuen aldetik, ezta?

HERIOA: Tira...

HANKAZIKIN: (*Segapotoa aurkitu eta zenbakia markatzeari ekinez*) Plasta galantak izaten dira, gainera! Etxetik atera eta... ene! Beste kalaka-

rik ez dut entzun behar: zer edo zer gertatuz gero, abisatzeko eta abisatzeko.

HERIOA: Segapotoa...! (*Gutiziaz begiratzuz gailua*) Dena dela, hatza ez nekatu.

HANKAZIKIN: Hildakoak ez zirela nekatzen uste nuen. Beti etzanda...

HERIOA: Esateko modu bat da... (*Erasora pasatuz, umearen inguruan, telefonoa kendu nahian*) Ekarri, emadazu segapotoa!

19

HANKAZIKIN: (*Bere burua defendatuz*) Utzi deia egiten, demonio! Alde!

HERIOA: (*Jo eta ke*) Emateko, mesedez...! Segapotoa! Gainera ez duzu konexioa egiterik lortuko, eman...

HANKAZIKIN: (*Ihesean*) Zergatik ez? Badauka bateria! Utzi bakean!

HERIOA: Estaldura falta zaio baina. Hori pena! Gauden ezlekutik ez dago deiak egiterik, ez duzu ulertzen? (*Hori entzunda, borrokatzeari seko uzten dio Hankazikinek*) Tira, ekarri segapotoa niretzat, zuk ez duzu beharko hemendik aurrera (*Umeari telefonoa kentzen dio*) Aupaaa...!

Segapotoa eskuan, sega zorrozteari ekiten dio Herioak. Burumakur begiratzten dio umeak.

HANKAZIKIN: Horretarako nahi zenuen segapotoa? Sega zorrozteko?

HERIOA: Ui! Zertarako bestela?

HANKAZIKIN: (*Herraz*) Jende gehiagori, zera, bizia mozteko, ezta? Ris-ras, belarra baltz bezala.

HERIOA: (*Sano-sano*) Askoz lan gehiago egiten dut azkenaldian segapotoei esker. Bai, bai, hauei esker, ez begiratu horrela. Ez al dakizu zer-nolako baldintzetan egiten duten lan umeek koltan-meategietan?

HANKAZIKIN: Koltan? Zer da koltana?

HERIOA: Mineral bat, segapoto hauek egiteko behar-beharrezkoa dena. Gerra latzak sortu dira hor, Afrika aldean, mineral horren usiaketa kontrolatzeko. Hor ari dira denak bazterrak nahasten, koltana eskuratu eta negozio egiteko.

HANKAZIKIN: Eta niri zer inporta koltanak! Etxekoei abisatu nahi diet nik.

HERIOA: A! Zure segapotoa egin ahal izateko behar den koltan horren kontura gerrak sortzea zuri ez zaizu inporta, baina, badaezpada, ederki asko aurpegiratzen didazu gero baten bati belarria mozten badiot!

HANKAZIKIN: «Belarra» esan dut nik lehen, aditu? «Belarra», ez belarria.

HERIOA: (*Bere buruarekin pozik*) Belarra edo belarria edo lepoa izan! Bizirik egonez gero, berdin zaizkit denak: ris-ras!

HANKAZIKIN: Norbait akabatzea, horixe da kontua zuretzat.

HERIOA: Tte, tte, tte... Nik ez dut inoiz gerrarik piztu, e! Adi.

HANKAZIKIN: A, nire errua izango da orduan. Hil eta horixe besterik ez nuen entzun behar!

HERIOA: Errua-errua... ez dakit, baina inuzentearena ez egin nirekin.

HANKAZIKIN: Nik?

HERIOA: Zuk, bai. (*Erotuta dagoela adierazten dio umeak keinu batez*) Baina zu... zu zer mundu motatan bizi izan zara? Txoritan, ala?

(*Segapotoa erakutsiz*) Ez dakizu hangoei kolta-
na eta bestelako lehengaiak erdi erosita erdi
lapurtuta egiten direla gero hauek bezalakoak?

HANKAZIKIN: (*Haserre*) Nik ez diot ezer la-
purtu inori.

HERIOA: Ez, lapurtu ez, baina probetxu ate-
ra bai. Zuk lapurrari erosi eta berari eman dio-
zu dirua.

22

HANKAZIKIN: (*Sesioa eteteko asmotan*) Utzi
bakean!

HERIOA: (*Sega zorrozteari ekinez berriro*) Lan
asko ematen didate, gerra horiek, bai, lan es-
kergea...

HANKAZIKIN: Gustura orduan zu! Hiltzeko
zer edo zer egon bitartean...

HERIOA: Hiltzea, bai, horixe dut lana. Baina,
kontxo, gerra batean, horrela, barra-barra...
horrenbeste presarik ere ez daukat jendea pa-
retik kentzeko!

HANKAZIKIN: Eskerrak! Presarik izanez
gero, jaio eta hurrengo egunean moztuko ze-
nuen nire «konexioa»!

HERIOA: *(Kontraesanean harrapatuta edo) Tira... Isilunea. Ohe ondora hurbiltzen da Hankazikin eta maindirea apur bat altxatzen du zangoen aldetik. Eskua luzatu eta, gorpuari zangoak ukitu edo ez ukitu, hortxe geratzen zaio airean.*

HERIOA: *(Atzetik, jator) Lasai, ez izan beldur, ume, zeure hankak dira-eta!*

Arnasa hartu eta ukitu egiten ditu, baita eskua berehala urrundu ere.

23

HANKAZIKIN: Egia da diotena, hotzarena... Hankak hotz ditu... edo ditut, ez dakit jadanik!

HERIOA: Hanketatik sartzen da hotza, pixkanaka-pixkanaka. Sabela oraindik epel izango du, eta ezpainak bero. *(Gorpuaren ezpaine-tara luzatzen du eskua Hankazikinek; beldurrak hartu, ordea, eta, ukitu gabe, atzera egiten du)* Oso tipikoa du hiri honek hori, hotzarena.

HANKAZIKIN: *(Inguruari begira)* Hiri honek? Zer hirik?

HERIOA: Nola zer hirik? Zu zauden hiri honek. *(Ez ulertzearena egiten du umeak)* Hiri hotza duzu

hau, ume! (*Barrez lehertzen, egindako txisteaz pozik*) Ulertzen? «Hiri hotza», zein, bada, bestela? Biztanle gehien duen hiria, milaka milioikoa!

HANKAZIKIN: (*Haserre*) Biztanle? Bertan bizi direlako ez da izango, behintzat.

24 HERIOA: Ummm... Bai, egia da, hitzen bat asmatu behar nuke... Lotanberriztaberriztanle, agian?

HANKAZIKIN: (*Zapuztuta*) Umore beltza duzu gustuko, ezta? Alproja horrek!

HERIOA: (*Sega zorrozteari ekinez, jostari*) Nola esango nizuke... beltza baino, umore zorrotza nahiago dut nik.

Isilunea.

HANKAZIKIN: (*Burumakur*) Orduan, animalia modukoak gara zuretzat.

HERIOA: Bizirik dauden bestelako izakiak bezalakoak, noski. Zer du gaizki horrek?

HANKAZIKIN: (*Kexuz*) Bai, tximu barregarri horietakoak bezala...

HERIOA: Jakina, tximu barregarri horietakoak bezala, lore ederrak bezala... Diferentzia

bakarra dago: zuek baduzue heriotzari tranpa egiteko nolabaiteko zirrikitu bat. Nolabaitekoa, e! Hil eta gero bizirik jarraitzeko.

HANKAZIKIN: (*Animatuta, bat-batean*) A, bai?! Hil eta gero bizirik jarraitzeko? Konta, konta... Di-da itzuliko naiz etxera gurasoekin eta lagunekin!

HERIOA: Ahaztu hori, demonio, ezinezkoa da-eta! Nolabaiteko tranpa esan dizut nik, ez besterik.

HANKAZIKIN: (*Etsita berriro*) Bai... Orduan ez dago bizirik jarraitzeko modurik...

HERIOA: Horrela, benetan bizirik esateko... ez. Baina nola edo hala bizitzeko... bai.

HANKAZIKIN: Dio! Matematikako irakasleak baino ilunago hitz egiten duzu, e! Askoz gehiago ulertzen diot hari.

HERIOA: Bada, erraz ulertzekoa da, ume. Memoria duzue zuek, beste bizidunek ez daukatena! Oroitzeko ahalmena! Memoriaren bidez zuen familiakoengan eta lagunengan jarrai dezakezue bizirik.

HANKAZIKIN: A... Eta hori al da guztia?

HERIOA: Gutxi iruditzen zaizu? Zure ingurukoen bihotzean eta oroimenean bizirik jarraitzea?

HANKAZIKIN: (*Apur bat pentsatu eta gero*)
Bai, gutxi.

26 HERIOA: Beno, antzerkiarena ez egin orduan.

HANKAZIKIN: Antzerkiarena? Zer antzerkiarena?

HERIOA: Ez al dakizu? Antzerki bat egiteko aukera ematen zaie hilberri guztiei. Haien bizitzaren pasarte batzuk aukeratu eta taularen gainean jartzeko, inguruko gogoan uzteko. Baina ez baduzu nahi...

HANKAZIKIN: (*Azkar*) Itxoin, itxoin... oraindik ez dut ezetz esan.

Isilik geratzen da umea, pentsakor.

HERIOA: (*Tentagarriri*) Zu zuzendaria, zu antzezle nagusia... (*Ikusleak seinalatuz*) Lasai, zure alde jarriko dira ikusleak... Zure alde eta nire kontra, ulertzen? Zu heroia, eta ni... Herioa.

HANKAZIKIN: (*Zalantza txiki bat egin ondoren*)
Tira, ados, egingo dut, antzerkia egingo dut.

HERIOA: Aupaaa... Oso ondo! Antzerkia egingo dugu! (*Sega dantzakide hartu eta umearen inguruan ematen ditu bizpahiru buelta, dantzan eta kantuan*) Arantxan txan, arantxan txan, guli, guli, guli, guli, guli, arantxan txan...

HANKAZIKIN: Aizu, ez dut uste dantzan has-teko unea denik, e! Nire gorpua hor aurrean dugula, hankak hotz!

HERIOA: (*Dantzatzeari utzi gabe*) Zer? Kalte egingo dio, ala?

HANKAZIKIN: Ez dakit, lehenengo aldia da hiltzen naizena... Gainera, kanta hori, txango batean abesteko ondo, baina...

HERIOA: Lasai, ulertzen dut. Tristeago bat kantatuko dut orduan, hemengo... zera... «gi-roarekin» hobeto egokituko dena. (*Gregoriano antzeko bat ahots goran lardaskatuz*)

HANKAZIKIN: (*Errieta bizian*) Aizuuu...!!!

HERIOA: Ez? Hori ere ez? Triste da, bada, ez duzu ukatuko.

HANKAZIKIN: Nahikoa!! Ados? (*Herioa mutu-tu egiten da. Eta umea lasaitu, apurka-apurka*) Tira, esan, zer behar dut antzerki hori egiteko?

HERIOA: Ez jarri urduri, hori hasteko. Eta gero, aurreneko ekitaldirako pertsonaiak eta lekua aukeratu.

28 *Pentsatzeari ekiten dio umeak.*

HANKAZIKIN: Pertsonaiak... aita eta ama izango ditut (*Esan eta hantxe sartzen dira biak bazter batetik, mantala jantzita, zartagina eta kazola eskuan*). Eta lekua, ez dakit, etxeko sukaldea adibidez (*Argiak piztu eta sukalde moduko bat agertzen da agertokiaren beste aldean. Harriduraz begiratzen du umeak*) Hara...

HERIOA: Hortxe duzu, zurea da eszena.

HANKAZIKIN: Igandea da, lagunekin bueltatxo bat ematera atera eta nire zain daude bazkaltzeko...

Gorpuari begiradatxoa bota eta agertokiaren beste aldera abiatzen da umea, zalantzas hasieran, konfiantzaz gero, korrika azkenean.

HANKAZIKIN: Ama! Ama! Aita! Hilda nago!
Hil egin naiz!

HERIOA: Ez nekatu, ume, ez dizute sine-
tsiko-eta!

HANKAZIKIN: Utzi ni bakean! Neure antzer-
kia da-eta!

HERIOA: Ados, ados... Baina, itxoin, behar
den moduan jantziko zara gutxienez, ezta?

29

*Ohe ondoko armairutxotik arropa atera eta
janzten laguntzen dio Herioak.*

HANKAZIKIN: *(Korrika abiatuz berriro)* Aita!
Ama! Hil egin naiz!

Ospitaleko argiak itzaltzen dira.